

Sorne  
Rubio  
Arano

Mundakako  
udalerako  
alkategaia

Candidata  
a la alcaldía  
de Mundaka

ehbildu

**Maite  
duzun  
Mundaka**



*¡Es posible!*

**EGINGO DUGU.**

## Legegintzaldirako asmo orokorra

MUNDAKA orekatua gura dogu, buruagaz eratu eta atondua, bizi-kalitatea bilatu eta gure kaleak bizitzaz betetako espazio legez berreskuratzearen alde egingo dauna. Auzokide guztion parte-hartzeagaz.

MUNDAKAK ezin dau bere etorkizuna hipoteketan jarraitu, ETXEBIZITZARI jagokonez dogun arazo larria konpontzeko ezer egiten ez dan bitartean lurzoru gehiago kontsumituaz.

Mundakan, erizpide argi eta garbiekin garatuko dogu elkarbizitza: gizon-emakumeen arteko BARDINTASUNAZ, iraunkortasun soziala, ekonomikoa eta ingurumenaren bilatuaz. Horretarako DANON ARTEAN eztabaidatu eta erabagi beharko dogu.

Horretarako, Udala aurreko legegintzaldian murgilduta egon dan kaosa eta paralisia gainditu behar dira, hamar-kada askotan garatutako politikaren amaiera besterik ez dalako, eta aro barri bati indarbarrituta ekin behar jakolako. Gure herriak aspalditik behar dauzan ALDAKETA handiak gauzatzeko, gobernetako modua errotik aldatu behar dogu.

AIDE BARRIAK. UDAL IREKIAGO, PARTE-HARTZAILEAGO, INKLUSIBOAGO, BERDEAGO diseinatu eta sustatuaz. Horregaitik guztiagatik egiten dogu BARRITZEKO planteamentu hau. Goazen ba gura dogun etorkizunaren bila! Erabagitasunez, kemenez eta eraginkortasunez.

Udalerako darkargun programa honetan datozen lau urteetan gure jarduna inspiratuko daben asmo nagusien nondik norakoak azaltzen doguz; zeun laguntzeagaz, legegintzaldi gehiagotan be ekiteko erea izango dogulakoan. Asmook bideratzeko, izan eikean eta talderik onena eratu dogu. Ezagututen dozuezan herritarrek dira. Danon BOTOAGAZ asmo handiko zeregin horreek aderez eta ilusi-

noz aurrera aterateko gai dala badakien jentea hain zuzen be.

Beste jarduera askok osotuten dabez programa honetan zirriborraturik aurkezten deusueguzan jarduera-ildoak, aintzat hartu daizuezan. Legegintzaldi honetarako aurreikusita doguzan premiazkoenak dira. Ezin danak hemen sartu, lekurik ezagatik. Halandaxe, karpainan zehar eta legegintzaldi osoan azalduko deusueguz besteok zertan diran. Ziur gagoz datozen lau urteetara begira hemen azaldu dogun guztia aurrera eroateko denborarik eta indarrik ez dugula faltan izango.

Esandakoak gogoan, herritar guztiorri mezu zuzena eta argia bialdu gura deusuegu: “Uste badozue Mundakak aurrerapausu bat emon behar daua, munduko ilusino, konpromiso eta apaltasun guztiagaz, hemen dozue EH Bilduren proiektua gauzatzeko osotu dogun taldea, gure herriarentzat eta, batez be, ZUENTZAT, HERRITARRENTZAT proiektua dana.”



## Ambición para una legislatura

*Queremos un MUNDAKA equilibrado, diseñado y planificado con la participación de todos y todas nuestras vecinas, buscando la calidad de vida y apostando por recuperar espacios para llenar de vida nuestras calles.*

*Un MUNDAKA que no puede seguir hipotecando su futuro consumiendo más suelo, mientras no se hace nada para resolver el grave problema que tenemos con respecto a la vivienda.*

*Un MUNDAKA en que la vida se desarrolle con criterios de igualdad entre hombres y mujeres, sostenibilidad social, económica y ambiental, para cuya consecución deberemos debatir y decidir entre TOD@S.*

*Para ello es preciso superar la etapa de caos y parálisis en que el Ayuntamiento ha estado sumido la anterior legislatura, que no es más que el colofón de la política desarrollada durante décadas y, afrontar una nueva etapa con fuerzas renovadas para realizar los grandes CAMBIOS que nuestro pueblo necesita ya desde hace bastante tiempo, modificando radicalmente TAMBIÉN la forma de gobernar.*

*Dando nuevos aires, diseñando e impulsando un NUEVO Ayuntamiento más ABIERTO, PARTICIPATIVO, INCLUSIVO, VERDE y, que pueda llevarnos al futuro que deseamos y hacerlo con decisión, energía y eficacia, por eso hacemos este planteamiento de RENOVACIÓN.*

*Sirva este programa que presentamos para esbozar las ambiciosas líneas maestras que van a inspirar nuestra actuación los próximos cuatro años y, con vuestro apoyo, esperamos que más legislaturas. Para lo que hemos juntado el mejor equipo posible, gente a la que conocéis y que sabéis que está más que capacitada para empujar, con vuestra ayuda y vuestro VOTO, esta ambiciosa tarea con energía e ilusión.*

*Hay muchas otras actuaciones que completan estas líneas de actuación que esbozamos y sometemos a vuestra consideración en este programa, acciones que tenemos previstas para esta legislatura, que no hemos podido incluir aquí por falta de espacio y que, esperamos explicaros personalmente durante la campaña y durante toda la legislatura. Estamos convencidos que tenemos tiempo y energías más que sobradas para llevar adelante todo lo que proponemos en los próximos cuatro años.*

*Por todo esto, “Queremos mandar un mensaje a todas y todos nuestros vecinos, si creéis que Mundaka tiene que dar un paso adelante, con toda la ilusión, compromiso y humildad del mundo, aquí tenéis un equipazo que hemos conformado para llevar a cabo el proyecto de Eh Bildu, que es un proyecto para para nuestro pueblo y, sobre todo, para VOSOTR@S, sus CIUDADANOS.*



- 1 **Sorne** Rubio Arano
- 2 **Andoni** Longarte Arzanegi
- 3 **Jose Manuel** Anasagasti Etxeita
- 4 **Aline** Soberón Rodríguez
- 5 **Jose Manuel** Martínez Pindado
- 6 **Irati** Kapanaga Mondragón
- 7 **Andoni** Arana Urkiza
- 8 **Nagore** Lekuona Asla
- 9 **Benigno** Zaldunbide Oleaga
- 10 **Montserrat** Astigarraga Korkuera
- 11 **Javier** Navarro Ruiz
- 12 **Itzi** Coria González

# Gure taldea

---

## *Nuestro equipo*

---

Hona hemen talde bat askotarikoek osatua. Gazteak eta ez hain gazteak, pentsinodunak, itsasoko jendeak, kultur sareagaz konprometituak, mobimentu euskaltzalekoak, kirolekoak, Osakidetza-ko langileak, historialariak, gizarte hezitzaileak, arkitektoak, irakasleak, gazte mugimendukoak, burruka sindikalean ibilitakoak, asko eta askotarikoak.

*Os presentamos una candidatura formada por gente joven y algunos no tan jóvenes, pensionistas, gente de mar, personas comprometidas con el tejido cultural, del movimiento euskaltzale, del deporte, autónomos, hosteleros, trabajadores de logística, de Osakidetza, educadoras sociales, arquitectos, profesores y profesoras, gente con experiencia en el movimiento juvenil y en la lucha sindical.*

# Udala denontzat *Ayuntamiento para tod@s*

UDALA HERRIARENA DA.  
HERRIAREN BEHARRAK ETA PREMIAK  
ZERTAN DIRAN ADITZEN, ETA GERO  
HERRIARI ARNASEA EMOTEN JAKIN  
BEHAR DAU.

## Gure UDALA berbiztu

Udala paralisi-egoeran dago, besteak beste, oraintsuko gertakariak, pandemiak eta beste “nahaste” batzuk dirala eta. Egoera hori iruli egin behar da normaltasun-etapa barri bati aurre egiteko.

PREMIAZKOA da herritarrengandik hurren dagozan zerbitzuak eskainten dauzan administrazio-organoa bizi-barritzea, udalerraren dinamizatzailea izan daiten, eragozpen eta liskargune tamalgarria izan beharrean.

Horretarako, egiteko erak eta sako-neko zerak aldatu behar dira. Egiteko erak, Udala adeitsuago izan eta herritarrentzakoagoa; sakonera joaz, eta oraingoaren guztiz eberdina izango den ikuspegi begiratura, gure herriak merezi dauen lan eraginkorra egin ahal izango dauan udala behar dogu.

EL AYUNTAMIENTO ES LA CASA DEL PUEBLO, EL ORGANISMO QUE DEBE RECOGER LAS NECESIDADES Y LA EXPRESIÓN DEL PUEBLO E INFUNDIR VITALIDAD A LA SOCIEDAD.

## Resucitar nuestro AYUNTAMIENTO

*Debido, entre otras cosas, a los recientes acontecimientos, pandemias y otros “lios”, el Ayuntamiento se encuentra sumido en una situación de parálisis que hay que revertir para afrontar una nueva etapa de normalidad.*

*Es URGENTE la revitalización del órgano de la administración que proporciona los servicios más cercanos a la ciudadanía, para que sea dinamizador del municipio en vez de un lamentable lastre y foco de discordia.*

*Para ello es necesario cambiar las formas y el fondo. Las formas para que el Ayuntamiento sea más amable y volcado hacia el ciudadano y, el fondo porque solo mirando desde otra perspectiva que nos permita ver a mayor profundidad, se podrá hacer la labor eficaz que nuestro pueblo merece.*



## Egin beharreko ekintza batzuk

Obra txikiko lizentziak egunean bertan lortzeko aukerea emotea – Web orriaren barrikuspena, informazioa zabalduaz, beti be norabide biko ikuspegiagaz – Osoko bilkura gehiago izatea – Alkate eta zinegotzien dietak murriztea – Udal Ordenantza guztiak barrikustea eta eguneratzea – Gardentasunaren ataria sortutea.


**Funtsezkoa da  
administrazioaren  
jarduna bizkorra eta  
eraginkorra izatea.**

## Algunas acciones a llevar a cabo

*Posibilitar la obtención de las licencias de Obra menor en el día - Revisión de la página web, ampliando la información y con enfoque bidireccional - Ampliación del número de plenos - Reducción de las dietas de alcalde y concejales - Revisión y actualización de todas las ordenanzas municipales – Incluir un Portal de Transparencia.*

**Es fundamental  
que la actuación  
administrativa sea  
ágil y eficiente.**

# Sei proiektu zehatz herritarren bizitzak hobetzeko



## URBANISMO Y VIVIENDA: Apuesta e impulso decidido por la vivienda social

*El suelo edificable de Mundaka se está agotando. Debemos adoptar medidas que permitan mantener políticas de vivienda en el futuro*

*Proponemos un ambicioso programa de vivienda social municipal, que permita que la juventud pueda emanciparse y, que el Ayuntamiento pueda atender cualquier situación de emergencia social.*

*Mantendremos inventarios de vivienda municipal, turísticas, habituales, temporales y vacías, para poder diseñar las políticas municipales efectivas combatiendo la vivienda vacía y facilitando el acceso de los jóvenes a la vivienda.*

*Elaboraremos una normativa para regular las viviendas turísticas y estableceremos una moratoria.*



## KULTURARI, EUSKEREARI ETA HEZKUNTZARI BULTZADA SENDOAGOA EMON

**Kulturea:** udal kultur programa bat sortuko dogu. Gitxiegi erabiltzen diran instalazioak ahalik eta gehien aprobetxateko.

**Euskerea:** gure hizkuntza ikastearen balioa erakasteko neurriak behar doguz. GAur egun horreek aprobetxatea herrian euskerearen aldeko giroa sortuteko. Euskerearen erabilera normalizetako udal araudia ezartzea, UEMaren laguntza eskatuaz.

**Hezkuntza:** gizartetik egiten ari diran proposamenak gogoan hartu behar dira; instalazioak hobetu behar dira; jantokia eta patioa; bigarren hau duina eta estalia. Mundakako Eskolako larrialdi-plana barrikus. Benetako Udal Kontseilua sortu, eragile guztien inplikazioagaz.



## MUNDAKA: VERDE, LIMPIA Y SOSTENIBLE

*Ampliaremos los días de recogida de basuras durante el verano - Recuperaremos la gestión directa de la limpieza viaria para un mejor control de la misma - Mejoraremos la eficiencia en todas las instalaciones municipales mediante la instalación de placas solares y modificación del alumbrado a LED.*



## GAZTERIA ETA KULTUR ALKARTEAK

Gazteria zinegotzigoa sortu: gazteen partaidetza zabalagaz, AISIA eta KULTURA programak egiteko.

Gaztelekuko beste plan barri bat landu: parte-hartzea eta autogestioa sustatuaz jarduerak garatzeko, gazteen ideak eta ekarpenak lehenetsiaz, baita jaiak antolatzeke be.



## FEMINISMOA / GIZARTERATZE ETA GENERO POLITIKAK

Indarkeria sexista amaitzeko, emakumearen parte-hartzearen alde eta sexuen segregazioaren aurka burrukatzeko, autodefensa feminista, ahalduntzea, genero-hirigintza, hezkidetzaren sektore guztietan eta feminismoa gune guztietan sustetako programak proposatutak doguz.



## OTRAS PROPUESTAS

*Procurar la creación de un parking de autocaravanas alejado del centro.*

*Resucitar el campeonato de fútbol playero.*

*En tanto pueda producirse nuevamente situaciones de falta de médico, gestionaremos los medios de transporte alternativos a Gernika o Bermeo para garantizar que todos los ciudadanos puedan disfrutar del derecho al servicio de salud.*

# Busturialdea

## Busturialdea necesita una reflexión a largo alcance

Se dice que estamos en época de cambio. El crecimiento desproporcionado ha generado desigualdades sociales, y el modelo existente para Busturialdea no es más que la imagen de éste, no es buena noticia.

La comarca decrece socioeconómicamente, el empleo está estancado, el paro juvenil es preocupante y miles de personas salen fuera de la comarca para trabajar. Para mirar el futuro con optimismo, **necesitamos un plan estratégico que ponga en el centro la reserva de la biosfera**, el cual nos permite un desarrollo sostenible.

La política de vivienda determina el futuro y las condiciones de vida tanto de la comarca como de los ciudadanos; la ocupación inadecuada del suelo puede tener consecuencias en el nivel de endeudamiento de las personas y en las posibilidades de emancipación de los jóvenes. **Hay que tomar medidas para que la vivienda sea un derecho.**

La falta de agua debe llevarnos a tomar conciencia de su uso y gestión. La política privatizadora ha supuesto la mercantilización del suministro. **Es necesaria una intervención urgente para el control del agua.**

Hay que analizar el modelo del servicio de cuidados. La clave está en analizar todos los recursos (públicos, pri-



vados y comunitarios) y organizarlos al servicio de la ciudadanía y sus necesidades, para atenderla lo más cerca posible de casa, y así pueda realizar su proyecto de vida con garantías.

El servicio debe ser justo e igualitario. Para **garantizar una salud pública de calidad** es necesario ofrecer, reforzar y colocar camas en el Hospital de Gernika.

La promoción de la economía local exige el abordaje de la escala comarcal, poniendo a su servicio la Agencia de Desarrollo para **fortalecer la red productiva local y orientar la empleabilidad de las personas**. Hay que cuidar el comercio local, porque la pérdida de fuerza del comercio local empobrece la vida comunitaria.

La clave para avanzar es la inversión, tenemos que ofrecer a la ciudadanía la posibilidad de una vida digna, poniendo en marcha programas integrales, desarrollados conjuntamente. **Busturialdea necesita proyectos serios**, y eso no se consigue con una política laboral que solo mira al turismo.

**Necesitamos una reflexión de largo alcance. Busturialdea no es una comarca que esté “abierta” sólo unos meses, Busturialdea es una comarca que vivetodo el año.**

## Busturialdeak arnas luzeko hausnarketa behar du

Aldaketa sasoian gagozala esaten da. Neurri bako hazkundea desbardintasun sozialak sortu dauz, eta Busturialderako dagoan ereduaren irudia baino ez da, ez da barri ona.

Eskualdea sozioekonomikoki beherantzoa; enplegua geldirik dago, gazteen langabezia kezagarria da, eta milaka pertsonak eskualdetik kanpora urtetan dabe lanerako. Etorbizuna baikortasunez begiratzeko, garapen jasangarrirako aukera emoten deuskun **biosfera erreserba erdigunean ipiniko dauen plan estrategikoa behar dogu.**

Etxebizitza politikak eskualdearen zein herritarren etorkizuna eta bizi baldintzak determinatzen dauz; lurra- ren okupazio desegokiak ondorioak euki ahal dauz pertsonen zorpetze mailan eta gazteen emantzipazio aukeretan. **Etxebizitza eskubide izateko neurriak hartu behar dira.**

Ur faltak ura erabiltzearen eta kudeaketaren kontzientzia hartzeraren eragin behar gaitu. Politika pribatizatzaileak

ur-hornidura merkantilizatzea ekarri dau. **Ura zaintzeko premiazko esku hartzea beharrezkoa da.**

Zaintza zerbitzuen ereduaz aztertu behar da. Herritarrek euren bizitza proiektua egiteko baliabide guztiak (publikoak, pribatuak eta komunitarioak) aztertu eta beharizan horreen zerbitzura antolatzea da gakoa; etxetik ahalik eta hurren artatzeko. Zaintza sistema bidezkoa eta bardinzailea izan behar da. **Kalitatezko osasun publikoa** eukitzeko Gernikako ospitalean hainbat zerbitzu eskaintzea, indartzea eta oheak ipintzea beharrezkoa da.

Ekonomia lokalaren sustapenak eskualde eskala aboratzeko eskatzen dau. **Bertoko sare produktiboa indartu eta pertsonen enplegarritasuna bideratzeko** Garapen Agentzia ipinita bere zerbitzura. Bertoko komertzioa be jagon behar da, herriko komertzioak indarra galtzeak bizitza komunitarioa pobretzen dau eta.

Aurrera egiteko gakoa inbertsioa da, herritarrei bizitza duin baterako aukera eskaini behar deusagu, alkarregaz landutako programa osoak martxan ipinita. **Busturialdeak proiektu serioak behar dauz**, eta hori ez da lortzen turismoari baino begiratzen ez deuson lan-politika batezagaz.

**Arnas luzeko hausnarketa behar dogu. Busturialdea ez dalako hila-bete batzutan bakarrik “zabalik” dagoan eskualdea; Busturialdea urte osoan bizirikdagoan eskualdea dalako.**

# Maite duzun Bizkaia

EGINGO DUGU.



Iker  
Casanova  
Alonso

Bizkaiko  
Ahdun Nagusirako  
hautagaia

Candidato  
a Diputado General  
de Bizkaia

*Zurekin batera,  
inoiz baino gehiago  
izango gara.*

Zuk bezala, Euskal Herria Bildun herri hobe batekin egiten dugu amets eta, horregatik, maite duzun Bizkaiaren alde egingo dugu. Aldaketak datoz, eta gure esku dago aukerak baliatzea. Belaunaldi berrien etorkizuna, osasun publikoa, adinekoen zaintza eta zaintzen dituztenen lan-baldintzak, enplegua, gure herrien etorkizuna, industria, bizitzaren garestitzea, etab. EH Bilduk konpromisoa eta konponbideak eskaintzen ditu. Jendearen ohiko arazoei aurre egiteko konponbideak eta hori posible egiteko konpromisoa.

*¡Es posible!*

**ehbildu**

🐦 @Iker\_\_Casanova

🌐 bizkaia.ehbildu.eus